**Kapituluaren gida didaktikoa**

# Irudiaren egitura

Orain arte, teknikaz eta teknologiaz baino ez dugu hitz egin. Baina argazkilaritzak badu artearekin eta adierazkortasunarekin zerikusirik.
Alderdi hori gogoan, batek baino gehiagok esango du: "ene argazkiak ulertuak izan daitezen eta sentsazioak, emozioak edota asmoak adieraz dezaten nahi dut. Zer egin behar dut hori guztia lortzeko? Nola jokatu behar dut?"
Galdera horiei argiro eta ariketa praktikoen bidez erantzun nahi diegu bideo honetan. Lantegian, helburu berari jarraikiz, argazki serie bat osatzeko kontuan hartu behar direnak erakutsiko ditugu, urratsez urrats. Kasu honetan, argiaren kontra ateratako argazkiez osatutako seriea izango da.

02:42 - Estiloa. (SARRERA)

**Irudiaren egitura**

04:45 – Koadroa.
08:56 - Argia.
10:52 – Argiaren norabidea.
11:59 - Kontrastea.
—Kontraste handiko argazkia.
—Kontraste txikiko argazkia.
—Kontrargia.
15:20 – 1. amarrua.
16:25– 2. amarrua.

17:29- LANTEGIA: argazkiak kontrargitan.

***LANTEGIA: argazkiak kontrargitan***

Lanean hasi aurretik, ikusi bideoaren LANTEGIA atala. Jarraian, argiaren kontra argazkiak ateratzen hasi aurretik eman behar diren urratsak klasean ozenki birpasatuko ditugu. Bukatzeko, klasea taldetan banatuko dugu, argazkiak egiteko plangintza egingo dugu eta argazkiak ateratzera aterako gara.

Beharko ditugun materialak:

argazki kamerak eta objektiboak; erroiluak.

**Kontrargia**. Argi iturria objektiboaren aurrean dagoela ateratzen den argazkia.

**Kontrastea.** Argazkiaren alderdi ilunen eta argien arteko argitasun aldea.

**Koadroa.** Argazkian aterako den eszenaren, objektuaren zein subjektuaren zatia.



## LIBURUAK

**La fotografia paso a paso.** Michel Langford.
H. Blume Ediciones. -Madril- 1995

*Hauxe duzu eskuetan erabiltzeko libururik osoena eta ulerterrazena.*

**Macrofotografía**. W. Kruyt.
**Retrato creativo**. P. Zeemeijer.
**Técnica fotográfica.** W. Broekmyn.
Parramón institutua. -Bartzelona- 1990.

*Hiru liburu hauek, batez ere, praktikoak dira. Euretan adibide ugari aurkituko dituzu gai bakoitza jorratzeko.*

## Seriea osatzen duten bideoak

1.- Argazkilaritzaren oinarriak

2.- Argazki kamera

3.- Pelikula

4.- Esposizioaren kalkulua

5.- Irudiaren osagarriak

6.- Irudiaren egitura

7.- Konposaketaren artea

8.- Koloretako irudia

9.- Tresneria

10.-Argiztapen artifiziala

11.-Kamera sortzailea

12.-Argazkilaritza digitala

Ekoizlea:

iadi

Banatzailea:

artez IKUS-ENTZUNEZKOAK

M. Ortiz de Urbina pintorea, 3
11.bulegoa
01008-Gasteiz
Tel-faxa: 945200608

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILAK
ONETSIA
2002-11-28